

4.DIRU-SARRERAK

Gure proiektua guztiz berria den makina bat da. Honek izugarrizko abantaila izango du itsasoko zonaldean, ozeanoan zehar biltzen den zaborra garbitzen duelako. Gainera, proiektu hau gobernu eta gainerako beste inbertsore batzuei zuzenduta egongo da, beraz hauekin hitz egin beharreko gauza bat da. Gailu honen prezioa lanaren eta produkzioaren araberakoa izango da, zenbat denbora eskaini diogun eta zein izan den erabili ditugun materialen prezioa. Hala ere, honek arrakasta izanez gero prezioa pixka bat igoko genuke, horrela jarritako dirua eskuratzeko.



Hasiera batean guk inbertituko dugu proiektu honetan, hau da, gailu honek suposatzen duen kostua guk ordainduko dugu. Hala ere, gero bezeroekin hitz egingo dugu eta elkarrekin lanean hasi ezkeron bien artean egingo genuke. Gainera, lortutako irabaziekin gailu gehiago egingo genituzke edo proiektu hau haratago eramango duen beste ekintza batean inbertituko genuke.